

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

- **Baliabide fisikoak:**

Gure proiektua aurrera atera ahal izateko hainbat baliabide fisiko ezberdin beharko ditu. Lehenik eta behin, garrantzitsuena sistema elektroniko berezi bat osatu beharko dugu. Beraz hori egin ahal izateko kable mota ezberdinak, sensoreak, kamarak, pantaila taktilak, zerraiak, etab.

Hori guztiaz gain, bulegoak ere edukiko ditugu Zarautzen. Internetetik aparte bertan kontsultak nahiz gure produktuak erosteko aukera izango duten gure bezeroek.

Gure produktuak fabrikatzeko instalazioak ere Zarautzen izango ditugu. Beharrezko materialak bertan ornituko ditugu erosleentzako eraman ahal izateko. Horretarako hainbat furgoneta izango ditugu, mugikortasuna errazagoa izateko. Instalaziorako beharrezko materialak erraz eramateko behar den leku guztietara.

Sistema informatikorako berriz, web gunea bat izango dugu sarean kontsultak, erosketak, berrikuntzen jarraipenak, etab. ikusteko. Horrekin batera aplikazioa bat sortuko dugu. Aplikazioan web gunean baino aukera gehiago izango ditu erosleak. Segurtasun-kamera erosten baduzu zuzenean zure etxean gertatzen ari dena ikusteko aukera izango zenuke adibidez. Gainera, grabazioak aplikazio berean gordeko dira.

- **Giza baliabideak:**

Hasiera batean gu geu hasiko gara proiektua aurrera bultzatzen. Guk egingo ditugu instalazioak, web gunea, muntaia, etab. Enpresak martxa hartzen hasten denean eta diru sarrerak igotzen direnean langile gehiago kontratatuko ditugu produktuaren kalitate hobetzeko izateko eta kostu baxuagoa, produkzioa denbora baxuagoan izango baita. Produktuaren demanda igotzean espezializatutako pertsona ezberdin asko beharko ditugu gure enpresarako. Guztiak garrantzitsuak izango dira proiektuak aurrera egin ahal izateko.

- **Elektrizistak:**
 - Sistemak elektronikoaren muntaia.
- **Programadoreak:**
 - Web gunea eta aplikazioa sortzea eta funtzionamendua.
- **Igeltseroak:**
 - Atearen eta honen markoaren sistema elektronikoa arazorik gabe instalatzeko prestatu eta martxan jartzeko.